

Arrazoa lapurtu zidaten



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Fenomeno bitxia da arrazoa galtzearena. Hainbat aditz erabili daitezke: galdu, ez izan, eman... *Lapurtu* gus-tatzen zait niri, arrazoa lapurtu zidaten. Zuzenagoa da, eufemismorik gabekoa; arrazoa ez baita berez galtzen norabiderik gabe. Norbaitek, zerbaitek kentzen dizu. Subjektu argi bat dauka ekintzak. Fenomeno bitxia da beraz, arrazoa lapurtzearena.

Gogoratzen dut nire ikasle garaietan, orain lagun mina dudan ikaskide batekin paper baten apuntatzen genituela elkarri lapurtutako arrazoiak. Bat eta huts, bana, bi eta bat, hiru-hiru. Izenaren ondoan, arkatzez margotutako marrazoiez idazten genituen garaipenak, arrazoa golen eta saskiratzeen pare, nork bere defendatu beharreko eremuan huts ez egiteko partida bat bailitzan. Arrazoa lapurtzen dizutenean dolu bat pasa behar da, asimilazio prozesu bat. Nik pasa behar izaten dut, behintzat. “Dolu” hitzak gehiegizkoa dirudi, baina hala da. Ordu arte jakintza iturri desberdinetatik elikatu duzulako zure iritzia; izan gazte-txeko bileretatik, etxekoekin izandako eztabaidetatik, Durangoko Azokan erosi zenituen intelektualen liburuetatik, ikastetxeko ikasgai batean atera zenuen hamar hartatik, zure erreferenteak behin esan zuen horretatik... Arrazoiaren zi-

legitasunak pilatzen dituzu barnean. Adreiluz adreilu, ideia denak josten dituzu, eta zure identitatea gorpuztuko duen premisa multzo bat gordetzen duzu barruan. Hibernatzen uzten dituzu, eta etorriko diren eztabaidetan aurretiaz josi eta eraiki duzun dena kanporatzen duzu. Zenbat eta gehiago eraiki, arrazoa orduan eta hurbilago.

Baina barruko horrek *krak* egiten dit arrazoa lapurtzen didatenean. Segundo gutxi batzuetan Richter eskalako 7,5eko lurrikara bat sentitzen dut sabelean, eta hibernazioan zeuden ideia denak, adreiluz adreilu eraikitako argumentu guztiak arrakalatu egiten zaizkit. Gora doaz pitzadurak, balantzaka hasten zaizkit zutabeak, eta ez zaizkit ia zutik mantentzen. Kontziente naiz: sistemak baino arrakala gehiago ditut momentu honetan. Arrazoiaren oinarriak eraitsi egiten dira; eraitsi egiten naiz. Dolua hasi behar dut orduan, lapurtu didatenaren galera onartzeko prozesua.

Ez du zertan, baina askotan gogorra izaten da. Barrenean deseraiki zaidanetik hasiko naiz orain eraikitzen. Eta galera bati esker irabazi dezakedanaren paradoxan, pentsatzen jarri naiz, ea ez ote naizen bilakatzen naizena baino apur bat aberatsago arrazoa lapurtzen didaten aldiro. ●

Hitzak



UXUE APAOLAZA

Irudi batek ez du mila hitzek baino gehiago balio. Milatik gora hitz behar izaten dira irudi bat azaltzeko, eta hor daude liburuak, ikusten ari garena ulertarazi nahian. Baina hitzez armaturik, Twitterreko voyeur, irudi batek tripak lehertzen dizkizu. Eta ez dago justifikatuko edo arinduko duen hitzik.

Eta sarrera horrekin, ezin jakin gainera zertaz ari naizen. Zer irudik lehertu dizkizu zuri tripak aste honetan? Hitzak behar adierazteko. Al Aksa, Meskiten Zelaigunea, Ramadan, Jerusalem, Gaza, Palestina, Israel, Polizia, kolonoak, etxegabetzeak, gobernu-eraketa, suziriak, Gantz jenerala... Odola, zerraldoak le-

poan hartuta, haurrak hilda, haurrak dardarka. Eta egunarekin jarraitu behar.

Errazagoa da azken irudiei hitzak jartzea, “onartezina”, “ezin da horrela jarraitu”... Baina badaiteke, bai, noski, hitz askori sorgor egongo baikara: ura, atxilotuak (ez, bahituak), egotziak, birrinduak, ukatuak, pobretuak... Autodefentsa entzutetsurako eskubiderik gabe.

“Hamasek espero ez dituen kolpeak jasoko ditu” esan du Netanyahu. Guk ez. Palestinarrek bai, bizirik dirauten artean (hori baita beren delitua). Baina “mundua horrelakoa da”, “auzi konplikatu da”, “hori zortea hemen jaio izana”... Hitzak. ●